



ABALTZISKETA

2017KO IRAILAREN 28KO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Felix Maioz .Zinegotzia

Aritz Garmendia .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDIA

1. 2017-07-27 bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. Alkatearen ebazpenak 2017-24tik 29 bitartekoak.
3. 2018 urterako udal ordenantzak aztertu eta dagokiona erabaki.
4. Genero indarkeriako laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
5. Partaidetzaren egitasmoaren barruan kontratazioa egitea onartzea.
6. Amezketako Udalaren proposamenak agertu (aisialdirako ikastaroa eta euskara ikasteko ikastaroak) aztertu eta dagokina erabaki.
7. Bake epaile eta epaile ordea izendatzeko erabakia.
8. Bide garbiketarako direla eta egutegi bat ezartzea bizilagunei jakinarazteko.
9. Galdera eta eskaerak.

1- 2017-07-27EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2017-07-27ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.



ABALTZISKETA

2- ALKATEAREN EBAZPENAK 2017-24TIK 29 BITARTEKOAK.

Alkateak ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera eman da :

- 2017-24: Kreditu aldaketaren haserako onarpena.
- 2017-25: Uztaileko fakturen ordainketa onartzea.
- 2017-26: Urko Bernarasen txabola handitzeko baimena onartzea.
- 2017-27: Maria Jose Amenabarroren lizentzi eskaera onartzea.
- 2017-29: Kreditu aldaketaren behin betiko onarpena.

Mahaikideek guztiaren berri jakin dute eta kreditu aldaketaren kasuan, aurreko bilkuran onartuta geratu zen.

3- 2018 URTERAKO UDAL ORDENANTZAK AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

2018 urtean indarrean izango diren zerga eta tasaren azterketa eta balorazioa egin da eta, bide batez, hobariak aplikatzeko tipoak eta prozedura ere zehaztu nahi dira.

IBILGAILUEN ZERGA. Obligaziozko zerga.

Zerga honetan, 11/1989 Arau Foralaren 5. artikulua eta martxoaren 19ko 4/2003 Foru arauak zerga honen inguruan arautzen duenaren arabera, Udalei eskumena ematen dien hobariak aplikatu ahal izateko.

Arauak onartzen dituen hobari kasuak hauek dira:

- Kuotaren %75 arteko hobaria ibilgailuak erabiltzen duen konbustiblearen arabera.
- Kuotaren %75 arteko hobaria, ibilgailuaren motorraren ezaugarriak direla eta beronek ingurunean duen eraginaren arabera. Kasu hauetan, motorra elektrikoa balitz, laguntza kuotaren %95 arte iritsi daiteke.



ABALTZISKETA

- Kuotaren %100 arte, ibilgailu historikoa den kasuetan. Fabrikazio egunetik kontatuta 25 urteko aintzinasuna duten ibilgailuentzako.
- Familia ugarien titulua dutenei, %50eko hobaria aplikatzea,

KUOTAK

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxi. Kuota (1)	Gehien. Kuota(3)	Egu. kuota(1,44)
a) Turismoak			
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39	55,17	23,17
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78	110,25	47,90
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30	110,34	103,93
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82	257,46	111,80
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34	331,02	143,76
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86	404,58	175,70
b) Autobusak.			
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30	249,90	120,13
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64	355,92	171,11
50 plaza baino gehiagokoak	148,30	444,90	209,94
c) Kamioiak.			
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28	126,84	60,99
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30	249,90	120,13
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64	355,92	171,11
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30	444,90	214,09
d) Traktoreak.			
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67	53,01	25,43
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77	83,31	38,75
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30	249,90	120,13
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak			
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67	53,01	25,43
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77	83,31	38,75
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30	249,90	120,13
f) Bestelako ibilgailuak			
Zikomotoreak	4,51	13,53	6,36



ABALTZISKETA

125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51	13,53	6,36
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72	23,16	10,90
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45	46,35	21,82
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90	92,70	46,70
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79	185,37	87,38

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak apirileko Osoko Bilkuran trakzio mekanizkozko ibilgailuen zerga errolda onartuko du.
- Udalak, maiatzaren 1ean, zerga ordaintzeko borondatezko epeari hasera eman eta ekainaren amaieran amaituko da.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.
- Ibilgailuaren fitxa kopia.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA. Obligaziozko zerga

Zerga honetan, 11/1989 Arau Foralaren 5. artikulua eta martxoaren 19ko 4/2003 Foru arauak zerga honen inguruan arautzen duenaren arabera, Udalei eskumena ematen dien hobariak aplikatu ahal izateko.

Arauk onartzen dituen hobari kasuak hauek dira:

HOBARIAK :

- Kuotaren %90 arte familia ugarien kasuan.



ABALTZISKETA

- Kuotaren %50 arte babestutako bizitzen kasuan.
- Kuotaren %50 arte, energi berriztagarrien probetxamenduagatik, eguzki panelak, biomasa edo termikoaren kasuetan.
- Kuotaren %50 arte, bizitza hutsa izan eta Jaurlaritzari uztea.
- Kuotaren %50 gehiago aplikatu daitezke etxe-bizitza hutsen kasuetan.

KUOTAK:

Landalurra: Balioaren %0,3 tik % 1,1 arte. Abaltzisketako kasuan %0,7750.

Hirilurra: Balioaren %0,04tik %4 arte. Abaltzisketan kasuan %0,1950

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasi eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak, Foru Aldundiari jakinaraziko dio, behin betiko errolda egiteko.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.
- Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa.



ABALTZISKETA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA. Borondatezko zerga.

HOBARIAK:

- Kuotaren %95ekoa obraren interesa: soziala, kulturala, historikoa ...
- Kuotaren %95ekoa autokontsumoari begira energi berriztagarriak ezartzen direnean.
- Kuotaren %50ekoa azpiegituretako inbertsio pribatuetan.
- Kuotaren %50ekoa Babes Ofizialeko bizitzak direnean.
- Kuotaren %50a persona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun kasuetan.

Abaltzisketako kasuan: %5a da. Arau Foralak onartzen duen gehiena da.

Abaltzisketako erroldatuentzako tipoaren %4ko hobaria aplikatzen da. Eta erroldatua izateagatik hobaria ezin da aplikatu, Arau Foralak ez dute honelako kasurik onartzen.

TASAK

ZABORREN BILKETA ZERBITZUA

2017 urteko zabor erreziboak:

- Etxez-etxeko bilketa zerbitzua:
 - Etxe bizitza bakoitzeko 75,00 €/urteko
 - Erroldatuta dagoen biztanle bakoitzeko 5,00€/urteko.
- Taberna eta antzekoak 339,13 €/urteko



ABALTZISKETA

Guztira , 2017ko lehen sei hilabetetan 7.212,36 € jaso dira. (gastuaren %55,43)

Zerbitzuaren kostua: 2017ko lehen bost hilabetean:

Bilketa gastu finkoa	1.205,83,64 x 5	6.029,15 €
Tratamendu gastua (aldakorra)		4.813,33 €
Guztira		10.842,48 €
Urtean		26.021,95 €

7- Hilerriko zerbitzua

Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa	600,00 euro.
Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa, heriotza aurretik urte bete erroldatuak	250,00 euro.
Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa	170,00 euro.
Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa, heriotza aurretik urte bete erroldatuak	80,00 euro

8- Udal jabari publikoa okupatzeagatiko prezio publikoa:

Udal jabari publiko okupatzeagatiko prezio publikoa: %1,5



ABALTZISKETA

Gaia aztertu da eta mahaikideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1- IBILGAILUEN ZERGA

Hobariak

- Ibilgailu elektrikoak, kuotaren %75eko hobaria izango dute eta Hibridoak direnak, kuotaren %50eko hobaria izango dute.
- Kuotaren %50 arte, ibilgailu historikoa den kasuetan. Fabrikazio egunetik kontatuta 25 urteko aintzintasuna duten ibilgailuentzako.
- Familia ugarien titulua dutenei, %50eko hobaria aplikatzea.

2018 urterako kuotak:

- **Tipoaren %1,8ko igoera aplikatzea, K.P.Iren arabera, hau da gutxienerako kuotari 1,46 aplikatzea.**

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxi. Kuota (1)	Egu kuota(1,46)
a) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39	26,84
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78	53,69
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30	103,93
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82	125,29
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34	161,09
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86	196,89
b) Autobusak.		
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30	121,61
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64	173,21
50 plaza baino gehiagokoak	148,30	216,51
c) Kamioiak.		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28	61,72
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30	121,61
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria		



ABALTZISKETA

dutenak	118,64	173,21
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30	216,51
d) Traktoreak.		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67	25,79
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77	40,54
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30	121,61
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak		
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67	25,79
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77	40,54
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30	121,61
f) Bestelako ibilgailuak		
Zikomotoreak	4,51	6,58
125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51	6,58
125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72	11,27
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45	22,55
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90	45,11
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79	90,21

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak apirileko Osoko Bilkuran trakzio mekanizkozko ibilgailuen zerga errolda onartuko du.
- Udalak, maiatzaren 1ean, zerga ordaintzeko borondatezko epeari hasera eman eta ekainaren amaieran amaituko da.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.



ABALTZISKETA

- Ibilgailuaren fitxa kopia.

2- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA. Obligaziozko zerga

HOBARIAK:

- Kuotaren %90eko hobaria familia ugarien kasuan.
- Kuotaren %50 eko hobaria babestutako bizitzen kasuan.
- Kuotaren %35eko hobaria, energi berriztagarrien probetxamenduagatik, eguzki panelak, biomasa edo termikoaren kasuetan.

KUOTAK:

Landalurra: Balioaren %0,3tik %1,1 arte. Abaltzisketako kasuan %0,7750 2017 urtean. 2018 urterako %1,8 eko igoera tipoari aplikatu eta %0,7889 izango da.

Hirilurra: Balioaren %0,04tik %4 arte. Abaltzisketan kasuan %0,1950. 2018 urterako %1,8eko igoera tipoari aplikatu eta %0,1985 izango da.

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasi eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak, Foru Aldundiari jakinaraziko dio, behin betiko errolda egiteko.



ABALTZISKETA

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.
- Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa.

3- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.

Korporazioak , eraikuntza eta obra zergaren tipoa %5 ean ezartzea erabaki du 2018 urterako .

Udalak . zerga hau borondatezkoa dela kontutan hartuaz, dirulaguntza linea bat onartuko du .

4.-TASAK

2017 urteko berdina uztea .

4- GENERO INDARKERIAKO LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Abaltzisketako Udalak, Plan Orokorra erredaktatu zuen 2013 urtean. 2017 urtean, beronen aldaketa zehatza egin nahi da eta bide batez Plan Orokorrean bertan ikusi daitezkeen hutsuneak aztertu eta zuzentzeko neurriak jarri, partaide guztien adostasunarekin.

Lan hau burutu nahi den eremua, Abaltzisketako hirigunea eta aldi berean Larrantz auzoa da . Larrantz auzoan, herritar gutxiago bizi badira ere bisitari askoen lekua da, uda, udaberri, udazkena eta jai egunetan.



ABALTZISKETA

Horregatik, indarrean dagoen planeamenduan eta eta eremu fisikoan ondorengo jarduerak burutu behar dira:

- Diagnostikoaren erredakzioa, indarrean dagoen Plan Orokorraren analisia eta bertan sartuta dauden proposamenen garapen eta exekuzio egoeraren azterketa, dauden arazoak ikusi eta horiei soluzio egokia emateko, beti ere genero ikuspegitik. Eta ondoren,

AURRERAPEN DOKUMENTUA prestatu, herritarren partaidetza eta adostasuna lortuta:

- Antzemandako hutsuneak konpontzeko beharrezko diren Neurri Zuzentzaileen zerrenda zehatza.
- Lagundutako agiriak edo aurrez egindako beste batek esandako neurri zuzentzaileak gauzatzeko hirigintza-araudian egin beharreko aldaketak zehaztuko dituen Eraginen Txostena.
- Atal propio batean, Eraginen Txostenak edo araudiaren azterketak zehaztutako ordenantzetako artikuluen edo fitxa urbanistikoaren idazkuntza alternatiboa.
- Iradokizunen inguruko txostena, alternatiba eta aldaketa ezberdinak proposatzea.

AURREKONTUA

- Diagnostikoaren erredakzioa, indarrean dagoen Plan Orokorraren analisia eta bertan sartuta dauden proposamenen garapen eta exekuzio egoeraren azterketa, dauden arazoak ikusi eta horiei soluzio egokia emateko, beti ere genero ikuspegitik..... 11.600,00€

AURRERAPEN DOKUMENTUA:



ABALTZISKETA

- Antzemandako hutsuneak konpontzeko beharrezko diren Neurri Zuzentzaileen zerrenda zehatza 2.500,00 €.
- Lagundutako agiriak edo aurrez egindako beste batek esandako neurri zuzentzaileak gauzatzeko hirigintza-araudian egin beharreko aldaketak zehaztuko dituen Eraginen Txostena.....2.500,00 €.
- Atal propio batean, Eraginen Txostenak edo araudiaren azterketak zehaztutako ordenantzetako artikuluen edo fitxa urbanistikoaren idazkuntza alternatiboa.....2.500,00 €.
- Iradokizunen inguruko txostena, alternatiba eta aldaketa ezberdinak proposatuz.....2.500,00 €.

Guztira Plan Orokorren zuzenketak eta bere aldaketaren egokitzapenak genero ikuspegitik..... 21.600,00€ (B.E.Z. kanpo)

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Jaurlaritzak luzatu duen laguntza deialdia, udal planeamendua genero ikuspegitik egokitzea burutzeko diru-laguntza eskaera bideratzea onartzea.

5- PARTAIDETZAREN EGITASMOAREN BARRUAN KONTRATAZIOA EGITEA ONARTZEA.

Abaltzisketako Udalak, partaidetza egitasmoaren barruan, 3.000,00 eurotako diru laguntza jasoko du, partaidetza lana burutzeko.

Diru-laguntza honetaz baliatuta, Udalak egokia ikusi du, herriko ur zikinen diagnosis egitea herriko langile bat kontratatuaz.

Mahaikideek ontzat eman dute, herriko langilea kontratazea eta lan hau egitea.



ABALTZISKETA

6- AMEZKETAKO UDALAREN PROPOSAMENAK AGERTU (AISIALDIRAKO IKASTAROA ETA EUSKARA IKASTEKO IKASTAROA) AZTERTU ETA DAGOKINA ERABAKI.

Amezketako Udalak , bi ohar bidali ditu Udal honetara, eta horren berri eman da Bilkuran:

- Begirale ikastaroak Amezketan burutzeko aukera. Ikastaroaren kostua 450,00 euro dira, eta Amezketako Udalak bere herritarrei 90,00 euro arteko laguntza emango diela.
- Euskera ikasteko ikastaroak antolatu dituzte eta euskera ikastaroen kasuan ere Udalak laguntza onartua duela jakitera eman da.

Abaltzisketako Udalak, proposamen honen aurrean honako ERABAKIA HARTU DU:

1. Begirale ikastaroetarako herrian deia banatzea zenbat interesatu dauden jakiteko. Eta ondoren, udalak dagokina erabakiko duela.
2. Eta, euskera ikastaroetarako , orain arteko irizpideak kontutan hartuaz, euskara ezagutzen ez duenari oinarrizkoa laguntza ematea egokia ikusi da. Aldiz, euskeraren alfabetatze edo titulu ateratzeko laguntza ez da egokitzat ikusten.

7- BAKE EPAILE ETA EPAILE ORDEA IZENDATZEKO ERABAKIA.

Botere Judizialeko lege Organikoko 101 artikuluek eta hurrengoak, eta ekainaren 7ko 371995 Bake epaileei buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, eta epea iragan denez, Abaltzisketako Bake Epaitegirako Epaile eta Epaile ordea izendatze lanari ekin behar zaiola aditzera eman da.

Publizitatea egin da herri mailan eta interesa dutenek hiru lagunek izena eman dute.



ABALTZISKETA

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1. Blanca Garofalo Rivadeneira epailea izendatzea
2. Argitxu Zabala Zeberio epaile ordea izendatzea

8- BIDE GARBIKETAK DIRELA ETA EGUTEGI BAT EZARTZEA BIZILAGUNEI JAKINARAZTEKO.

Abaltzisketako Udalak bide bazterrak garbitzeko makina eskuratu eta 2017 urtean lehendabiziko aldiz bide bazterrak garbitzeko lanak burutu izan ditu.

Lan hauek froga bezala burutu dira eta esleipena legez egiteko dagoela esan behar da.

Lan hauek burutu ostean, zenbait kasuetan, ur pasoak, moztutako belarrarekin zikindu egiten direla eta garbitzea komeni dela adierazi du herritar batek. Eta bere iritzian, Udalak lan hori burutzen badu, ur pasoen garbiketa lanak auzolanean egiteko egokia litzatekeela proposatzen du. Horretarako, auzolanak antolatzeke, makina lanaren egutegia egitea eta urtero herritarrei jakinaraztea proposatzen du.

Proposamenaren berri mahaikideei eman zaie eta ondorengo adierazpenak egin dira:

1. Lanaren antolaketa aurrez egitea zaila dela, eguraldia ere kontutan hartu behar delako. Beraz egutegi finko bat ezartzea zaila ikusten dela baina saiatu daitekeela.



ABALTZISKETA

2. Orain arte, batz besterik, 50 lan ordu burutu direla eta herriko makinarekin kanpoko lanak ere egiten erabili izan dela eta likidazioa egindakoan zehaztasunez, egindako orduak agertuko direla.

Eta bide batez jakinarazi da, Naherako bidearen zoladura egin denean, bidean ura gurutzatzeko zeuden aukerak desagertuta geratu direla, eta lehen zeuden bezala egitea beharrezkoa dela adierazi dute auzokideek.

9- GALDERA ETA ESKAERAK.

Bat.- Hondakinen inguruan honako bi arazo ikusten dira:

1. Hondakin ontziak dauden lekua. Hondakinen bilketa egiten duen garraiolariak, behin baino gehiagotan edukiontzia dauden lekura, bilketa egiteko, iritsi ezina azaldu du, ibilgailuak egoten direlako. Eta azkenaldian, bilketa egin gabe itzuli dela adierazi du Udalean.
2. Hondakinen sailkatzea. Errefuxaren edukiontzian, mota guztietako hondakinak agertzen dira eta behar den bezala ez da sailkatzen.

Egoera honen aurrean, Udalak honako hausnarketa hauek egiten ari da:

1. Gaur egun edukiontzia dauden lekutik atera eta beste leku batera eramanez, gaur egungo biketarako arazoari irtenbidea emateko.
2. Hondakinen sailkatzea ondo egiteko konpostagailua jarri.
3. Edukiontzi berdea kendu eta grisa bakarrik jarri, errefuxa bakarrik botatzeko.
4. Eta gaur egun egiten den bilketaren maiztasuna zenbatekoa den jakitea.

Hausnarketa hauek amaitzen direnean, herritarrei jakinarazteko geratzen da.



ABALTZISKETA

Bi.- Kultur etxearen erabilera dela eta, bertan dagoen energi kontsumoaren gaia kontutan hartuaz, gurasoekin bilera bat egitea proposatu da.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, 21:35etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak